

zuk jarri ideia,  
guk tresnak jarriko ditugu



autoenplegu-zerbitzuak

 **BBK GAZTE LANBIDEAN FUNDAZIOA**  
Ledesma 4-4.a 48001 Bilbo • Tel: 94 423 26 12

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

  
gaztelanbidean  
**bbk**


Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALD ZKARIA

**berria**

2006ko MARTXOA  
86. zkia. DOAN

Lehen kazetari  
mahatsorriak  
Mendaski abesbatza  
Euskararen Astea



**Carlos**

*"Herri sentimenduak  
urtero puntu batzuk  
ematen dizkio Athletici"*

 **BBK GAZTE LANBIDEAN FUNDAZIOA**  
Ledesma 4-4.a 48001 Bilbo • Tel: 94 423 26 12

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

  
gaztelanbidean  
**bbk**





## Begoñako portu giroa (1970)

*Baten bat harritu egingo jaku baina Begoñako errepublika zaharreko ibarretan, orain urte asko ez dala, arrantza barkuak egoten ziran. Beitu, bestela, Udaletxe aurreko portu giro hori. Baporak eta gabarrak nonon. Eta barkuetako baten tostartekoak beharrean. Erreparatu egiozu, irakurle hori, Ibaizabaleko uren koloreari. Eta Udaletxeko harriarenari. Eta behin erreparatzen hasi ezkeror, horra hor ingeles estiloko autobus gorria, Urubitarte garabiaz beteta... Ez da aldaketa txikia, ezta?*

*Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak itzitako argazkia*



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	4	▶ Inkesta .....	19
▶ Santutxuko inauteriak .....	5	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Peñalta mendia .....	25
▶ Mendaski abesbatza .....	10	▶ Hezkuntza .....	26
▶ Lehenengo euskal kazetari mahatsorriak ..	12	▶ Euskararen Astea .....	28
▶ Elkarrizketa: Carlos .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Honeik Bertonekoak aktualidadeko rebistie eitten dau-riela diñourie, baie oingoagaittik bada, rebista historiko-nostalgikoa emoten dau gehidxago.

Fuboleroak nostalgiko ibilteko arrazoiak asko daukiez aurten ta Bertonen fubolero bat baino gehidxago jabilku infiltraute. Nori eta Carlos delanteroari ein dotzie entrebistie oingoan. Izango direz asko honegaz Carlosegaz akordaten ez direzen modure, baia entzun, entzunde deukie ziertoena denbora bat egon zala Athleticdebilbao zana laletxeielkopen, da mundu guztidex zekotzona erresetue da lotsa munduko ekipo onenari. Askori entzuten jako hori ba, ta zeozer egongo zan, baie askok hori baino ez dakidxe eda-deoro haren ganien, entzun dauriena. Beste batzuk barriz, Carlos, Dani, Rojo, Gisasola ta enparuekaz hogoto akordaten da, hareik be elegante ibili zirien euren denboran, UEFAko finalailadedios,...

Honeikaz oin akordatie desesperazintoxue ez da ixingo oingoa ikusitte?

Nostalgiko paratiek dana dala beran parte ona be

badeko, Bertonekoak sarri pentsaten daurie munduen eurek bakarrik dabiltzazela, ta hameko barri emoten lehenengoak ta azkanengoak ixingo direzela, baina tate! Ez da holan ba! Gerra denboran be euren moduko kolgao batzuk be ibili ziren hameko kontuen kontari, grazidxegaz ganera, nor-nogaz ibiten zan be kontaten zeurien, ez honeik zikuok lez. Jenero seridxoia besterik ez daurie kontaten bata! Hamen koroa, han fabrikie bota ta anpuluek, Santutxu-Txurdinagako aste nagusidxe datorrela ta programie ta kulturie,... Santutxuko karnabalak kontateko be ez daurie txiste bat be bota,...

Horren nostalgidxe biher da ba: txismek, kotileoak, tratuek, zirridxek ta eskilaran azpikoak,... Orduen bai grazidxe bertonekoak. Lastima ha mozolo kuadrilie dana kakaztuten etor zana.


Beste inok eitten ez badau, hurrungo numeroan neu hasiko naz hameko kronika soziala eitten, Bertonekoakandik hasitte, ezpabere hainbesteko seriedadie ezin de ona ixin. Iguel asta Athletic bera be ibiliko littike hogoto saltsatxu apur bategaz.

Firmatue: Antxineko Lengomiñe



# GURE BAZTERRAK

GARAMENDI ETXE-MULTZOAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizatearen barrenerantz, badago etxe-multzo bat, Bizente Garamendi abadearen izeneko. Egin-eginean bere, etxe horreek eraigita dagoz Larrinagako kartzelaren orubean, Solo-koetxeko inguruan. Hori guztia suertatu zan 1972ko irailean.

Etxe-multzo garaiak dira, eta euren barrualdeko lekuak zabalak dira. Hareen aldearik baten Fika kalea dago, eta haren beheko aldean, Zabalbide kalea, eta kale honen zati baten ikusi geinke Galera etxea, gaur egun Jesus Aranbarri musika eskola dana. Etxe-multzo honetan eleiza bi dagoz: Kobadonga Eleiza eta Mesedeetako Andra Mariaren Eleiza.

Etxe-multzo honeri izena emoten deutsona Bizente Garamendi Urrutia josulaguna da (1887-1964).; bera Zornotzako semea izan zan, eta Urduñako ikastetxeko ikasketa-burua izan zan hango ikastetxean 1920tik 1926ra. Harrezkero, 36 urtean egon zan Bordelen (1927-1963) hango "orube espainiarra" izeneko obraren zuzendari. (Bordeleko Udalak berak emon eutson ohorezko uritar izentau eban.) Han gaixotu egin zan eta Euskadira itzuli zan, eta Loiolan hil. Frantziako Gobernuak Ohorezko Lejinoaren gurutzea emon eutsan, eta Espainiako Gobernuak emon eutsazan Isabel Katolikoaren izentazinoa eta Merezimendu Zibilarena.

GOTZON LOBERA REVILLA

Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea  
ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta.:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarondo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Unai Cuevas,  
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Arrate Diez  
LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98  
ALE KOPURUA:  
1.900

2006ko martxoa - 86. zkia.



Argazkiak: Iñigo Azkona


INAUTERIEK EURIARI JARAMONIK EGIN BARIK GIRO  
EDERRAZ BETE ZIREN KALEAK

*Santutxuko aratusteeek jendez lepo bete zituzten  
martxoaren 5ean auzoko kaleak. A zelako fauna atera zen  
euriari aurpegia ematera eta inaute giroa lau haizetara  
zabaltzera. Lortu ere lortu zuten, ederto gainera. Ikusi, ikusi  
irudiak eta esango duzue egia ote den!*





bertin



PAZ  
UR  
ERA



**bert** sound **rap** system

APIRILAREN 7 an ostirala 19:30ean

**jaialdia**

Unai Iturriaga  
Aritz Sound System  
Igor Elortza  
Wanka  
Jon Maia  
Daddy Jeff  
DZ

**HARRAPA ZAIK**

**BILBO ROCK ARETOAN**

**50000 EUROKO BONOIA LAU EKITALDIETARAKO**  
BONOIA EROSTEA GAZTE TXULO ALDIZKARIAREN HIRU HILEKO HARRIDETZA OGAN

SARRERA ETA BONO SALMENTA  
Zabalguneko Gazte Informazio Bulegoan  
Bilborocken emanaldi egunetan

SARRERA SALMENTA  
BBKren orotariko kutxazainetan

**SARRERA 2EURO**

Bilbao



# BEGOÑA ETA EUSKEREA

*Julen Gabiria idazleak bere blogean [www.eibar.org/blogak/gabiria] testu bi eskaini dizkio Boluetako Santa Ana fabrikari. Lantegia zenari, hobeto esanda, gaur egun orube hori zeharo garbi dago eta. Tximinia da, gurean ohi den bezala, iraganaren lorratz bakarra. Hona hemen galdakoztar idazlearen testuak.*

## BOLUETAKO SANTA ANA FABRIKA GOGOAN


Testua: Julen Gabiria

### MARIAREN BIHOTZA PLAZA (I)

Harritu egiten zara jendearen hitzekin, konturatu gabe egiten dutelako berba, esaten ari direna poesiatik oso hurbil dagoela pentsatu gabe. Ohartarazten badituzu, esaten badiezu euren ahotik irtendako hori poesia izan dela, betiko lotsatu eta ez dizute gehiago barbarik egingo, poesia bizimodu erosoaren emaitza iruditzen zaielako, bizimodu alferrikako, urrun eta bizizaleegiaren emaitza. Hori gertatu zitzaidan Boluetan, iaz, botatzen ari ziren fabrikari argazkiak egiten ari nintzela. Andre bat etorri zen ni nengoen lekurantz, etxeko



zapatiletan errepidean gora. Nire alboan jarri zen, eta jakin nuen poesia sortuko zela lehenago edo beranduago. Gero berbetan hasi zen; edadekoa zen, bada-kizu nolakoak diren. Esan zidan fabrikari jaio zela eta fabrikari itsatsitako etxe batean bizi izan zela beti. Hemen jaio eta hemen bizi, esan zidan, eta gehitu zuen: orain zelan kontaktuko dut non jaio nintzen, etxerik eta fabrikarik ez bada-go? Zutik utzi duten tximinia bakarrari begira, eta agur esaten duenaren naturaltasun berberaz, "mundu bat doa airean" bota zidan, eta nik ezin izan nion esan poesiaren kontu hori, bestela atzera joango baitzen etorritako bidetik, etxeko zapatilak arrastatuz, irainduen sentsazio berarekin.



Andreak burdinazko hesiaren kontra jarri zituen eskuak, eta hesira hurbildu eta zuloetatik begiratu zien obrei. Argazki bat atera nion bera konturatu gabe, bere izena esan zidan, Felisa edo. Kontatu zidan, ez baneki bezala, zenbat jende zetorren Espainiatik sasoi hartan. Bere gurasoak ere Ebrotik beherakoak zirela, baina bera bertakoa, eta lanean zeuden beharginei esnea eramaten ziela txikitan, eta berak ere orduan bazekiela basko apur bat, orain ahaztuta daukala dena.

Inongo arrazoirik gabe gogoratu naiz gaur emakume harekin, Mariaren Bihotza plazaren izkinan dagoen tabernara sartu naizenean. Bolueta, Etxebarria, Euskalduna, Labe Garaiekin gogoratu naiz. Gizonak dominoan jolasten ikusi ditut gaur. Gogoratzen ote dira airean joandako munduaz?



### AIREAN

Ostegunean idatzi nuen moduan, duela gutxi bota dute Boluetako fabrika (Tagzarian oraindik ere oso-osorik ikus daiteke), bertan etxebizitzak egiteko. Horren berri izan nuenean, argazkiak egitera joan nintzen (gauza bera gertatu zitzaidan "airean doazen beste mundu" batzuekin ere: San Anton zubia- ren muturrean zeuden Bilbo Zaharreko etxeekin edo Ideales

zinemekin, esate baterako).

Egia da esan nuena: emakume bat etorri eta sekulako historia kontatu zidan. Eta, besteak beste, hitz horiek esan zizkidan: mundu bat doa airean.

"Hemen jaio nintzen, fabrikari bertan. Orain zelan kontaktuko dut hori, etxerik eta fabrikarik ez bada-go?

**Oharra:** Goiko testu xume hori lehenago astetik daukat idatzita. Testu hori argitaratzeko asmoa nuen, beste barik, baina atzo hunkituta oheratu nintzen, Larrabetzuko hiru gazteren heriotzaren albistearekin. Horren berri izan nuenean, gogoan sartu zitzaidan eurei idazteko blog honetan, hunkiduratik. Baina ez, holakoetan askoz ere gehiago esaten baitu isiltasunak. Goiko testu eta argazkiek ez dute inongo zerikusirik atzoko istripuarekin, baina gazte horiei eskaintzen diet, eurekin ere mundu bat joan zelako airean.




**Halderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.halderapeko.com](http://www.halderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



# MENDASKI ABESBATZA



**Mendaski abeslarien belarra da. Izen aproposa gizon-emakume talde honek aukeratu dutena. Badira hamar urte abesteko zaletasunari forma eman nahi izan ziotela, baina ez dute urteurrenik ospatuko, ofizialki federatuta sei urte egin dituztelako bakarrik. Hasierako gogoaz edota agian are gehiagoz dabilta bazterrak alaitzen mota guztietako kantuekin.**

**Testua: Ixaso Perez  
Argazkiak: Mendaski**

Zurbaranbarri auzoan du abesbatza hau sorlekua. Orain dela urte batzuk, Emakumearen Zentroko emakume batzuek bikoteen taldea osatu zuten, gizonak apurtxo bat integratzeko asmoz. Horrela, hilabeteen behin biltzen dira hainbat gai jorratzeko. Azkenekoa, esaterako, bioetikari buruzkoa izan da. Saioaren ostean, afaritxoa egiten dute, eta ondoren, askotan gertatzen den bezala abesteari ekiten diote. Gero ere hiruhilabeteen behin irteera kul-

turala egiten dute. Bazkaldu eta gero, berdin, abestu eta abestu. Holako baten zenbait lagunak abesteko zaletasunak bultzatuta erabaki zuten 'serioago' hastea. Hala, zuzendari bila hasi ziren. Auzoko lagun bati esan zioten, Silvano San Joseri alegia. Gizon horrek eskolan abesbatza sortzeko saiakera egin zuen baina alferrik. Gazteek ez zuten gogo handirik solfeoa eta gainerakoa ikasteko. Silvanori deitu eta abesteari ekin zioten.

## JENDE GEHIAGO

Jende berria joan zen sartzen, auzokoa bertakoa, Andra Marikoa eta baita Zurbarangoa ere. Bi urteren buruan proiektuari beste buelta bat eman nahi izan zioten, ez zeukalako zentzurik astean bi egunetan entsegutan ibiltzea gero hiru lekutan kantatzeko. Hurrengo pausua Bizkaiko Abesbatzen Elkartearen (BAE) izena ematea izan zen. 2000 urtean federatu ziren. Egun 34 pertsonak osatzen dute abesbatza, emakume-

ak gehienak, eta ahots larrien falta sumatzen ari dira. Dotore abestu eta dotore jantzita ikusi ahal ditugu, baina hasiera guztietan bezala, norberak etxean zeukan alkandora zuri eta gona edota praka beltzak jantzi eta aurrera! Dirulaguntza txiki bat jaso zutenean, lehenengo batzuek eta gero besteek, pixkanaka lortu zuten gaur egungo jantzi dotorea. Baina dirulaguntza hori (Udalak ematen diena ostiraleroko emanaldietan parte hartzeagatik) Mendaskik berak auzoan antolatu behar duen emanaldiko talde gonbidatuentzako otordutxoak prestatzen joaten zaio. Beraz, ezinezkoa egiten zaie jantzia aldatzea, eta beharra badaukate, "alkandoraren zuria ez baita zuria honez gero", esan digutenez.

## DE OIDO

Taldea sortu zutenean inor gutxik zekien musikari (solfeoa) buruz gauza handirik. 'De oído' abesten zuten. Horregatik, eta euretako batek solfeo ikasketak zituela aprobetxatuz, astelehenero eskolak ematen ditu. Bigarren zuzendari bezala aritzen da. Gero, astearte eta osteguneroko entseguetan ahots bereiztu taldeetan entseguak egiten dituzte.

Hasieran Zurbaranbarriko liburutegi zaharreko lokalean biltzen ziren baina gaur egun auzoko Jubilatuen Elkartearen egoitzan egiten dute, Zurbaranbarriko plazan. Hasierako urteetan auzoko elizan kantatzen zuten, beste batzuetan Bihotz Sakratuan (Abril Mendian), eta bes-



**MENDASKI  
ABESBATZAREN  
EGUTEGIA  
XXVII UDABERRIKO  
KONTZERTUAK**

**Maiatzaren 6an  
ZURBARANBARRI**  
**Maiatzaren 20an  
AMOREBIETAN**  
**Ekainaren 3an  
ZAMUDION**  
**Ekainaren 10ean  
GALDAMES**  
**Ekainaren 11an  
ABESBATZEN EGUNA  
SESTAO**  
**Maiatzaren 21ean  
ZURBARANBARRIKO JIAK  
ZURBARANBARRIKO plazan**

tetan Miserikordiarra jaisten ziren euren emanaldia ematera. Gaur

egun hainbat programetan parte hartzen dute iraunkorki. Bilboko Udalak antolatzen duen Ostiraleroko Abesbatzen egunetan, adibidez, eta gero, BAEren emanaldietan derrigortuta daude parte hartzen.

Beste alde batetik inoiz ezkontzaren batean ere abestu izan dute, Athleticeen 100 urteurrenean San Mamesen kantatu zuten, eta auzoko jaietan parte hartu izan dute. Aurton, berriro ere egingo dute. BAEk urtean zehar Udaberriko Kontzertuak antolatzen ditu. Hiru edota lau lekuetan abesten dute, eta gero, abesbatzarik ez dagoen beste herriren batean. Aurten Galdamesen izango da azken hori. Abesbatzekiko zaletasuna sortzeko asmoz egiten du BAEk. Izan ere, abestea bai, agian, baina abesbatza sortzea ez da hain erraza, Mendaskikoek esaten duten bezala. Jende gehiago sartzea nahi dute.

## KANTUTEGI

Eliza kantuetatik hasita, euskaraz, errusieraz, latinez, italieraz... baina batez ere bertoko abesti euskaldunak. Habanerak ere atsegin dituzte. Aurten Mozarten jaiotzaren urteurrena dela eta bere abesti bat prestatzen dabilta. Urtero erreperitorioa berriztatzen dute, baina aspaldi abesten zituztenak berriz ere sartzen hasi dira, ez ahazteko. Grabatzeko aukera aipatzen badiezu, ezetz, asmorik ez. Inoiz bideoaz grabatu dituzte, baina horretan gelditu da dena. Hala, ospetsuak izateko gogorik ez.



## Garraioak



**Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33**



# LEHENENGO EUSKAL KAZETARI MAHATSORRIAK

'Euzkadi' egunkarian hiru lagunek idatzi zituzten Begoñako kontuak 1937 baino lehen

1935 eta 1937 urte bitartean 'Euzkadi' egunkarian hiru lagunek euskaraz idatzi zituzten Begoñako berriak. Korrespontsalon ezizenak baino ez dakizkigu, Gautxori, Igetutxa eta Aixexixa. Eurak dira BERTON honen aurrekariak. Hona hemen euren beharraren akordua.

Testua: L. Albarez  
Argazkiak: Berton



Estepan Urkiaga 'Lauaxeta' Euzkadiko euskarazko atalaren arduraduna izan zen

Lehenengo euskal kazetari mahatsorriak interneten bidez topatu ditugu. Susa argital etxearen armiarma.com webgunean aurkitu ditugu, oraintsu sarean paratutako 'Euskal prentsaren lanak' datu basean. Bertan 'Begoña' izena sakatuta Euzkadi egunkarian argitaratutako dozena bat artikulu agertu zaizkigu. 1935 eta 1937 urte bitartean, euskarazko kronikak idatzi zituzten Begoñatik.

Kronikak hiru sinaduraren gainean datoz. Hirurak ezizen: Gautxori, Igetutxa eta Aixexixa. Azkena gipuzkoarra zen. Bestea biak, ezin jakin, baina itxuraz mahatsorriak. Euren idatziak beti edo ia beti 'Begoña' izenburupean argitaratu dituzte, 'Errietatik' atalean. Bitxia da kontua, artean Begoña desagertuta zegoen eta. Bilbok 1925ean anexionatu zuen, Deustuarekin batera. Baina beste albo-herrietako (Deustua eta Abando) kronikarik ez dagoen lekuan hara non Begoña gainerako herriak bezalaxe tratatu zuten. Hor topatuko du irakurleak Mañaria, Zornotza, Morga, Bilbo, Lazkano, Mendata eta beste askorekin batera.

Hiru korrespontsaletatik lehenengo biek bizkaieraz idazten zuten, Sabin Aranak asmatutako

neologismoak sarri erabilia. Aixexixa gipuzkoarrak, oster, gehien bat gipuzkeraz egin zituen bere kronikak.

Hirurak, esan legez, Euzkadi egunkarian plazaratu zituzten euren albisteak. Euzkadi EAJren argitalpena zen. Francoren armada Bilbon sartu zenean

desagertu zen.

### GAUTXORI

Begoñako lehenengo kronikak 1935eko maiatzekoak dira eta Gautxoriren izenean datoz. Maiatzaren 19an eta 26an argitaratu zituzten. Gautxoriren kroniketan EAJren barruko albisteak topatuko ditugu lehenengo eta behin: Iruñeko Aberri Egunera joateko izena ematea ('gurdibiletan lekuba eukiteko'), batzokiaren zuzendaritza barria,...

Baina Gautxorik bazeukan beste alderdi ludikoago bat. Begoñako baserritarrek San Isidro zelan ospatu zuten kontatu zuen, esate baterako. "Goxaz, Jaupa [meza] nagusija ta aureskuba ta arratsalde, oturruntza-gero Erkal-piko enparantzan jolasea. Egun andija ixan zan baserritarrentzat, eguraldi txarra egon arren", idatzi zuen. Eta batzuetan gaur egungo prentsa arrosatik urrun ere ez zebilen.

**Begoñako Euzko Gaztedik euskal ikastaroak antolatzen zituen baina jende gutxi joaten zen bertara euskara eskolak hartzera**



### Begoñatik

**GUDARIEN GOGO ALDEZ.**—Jun kan larunbat bertan, urri onetako eleiz naguzian, goizeko bederetziretortean, Urkiola'tar Kepa (G. B.) Legutiano, guda ohiari, Euzkadi aldez biltza utzi zuan zuma'agata' guda gaste bular'atibaren gogo aldeko jaupa hiri'kan ditzan, beren sendiak antolatuta. Gaste gofina au, abertzale eta euzko langile zintzoa bere bixitza izanik, zuma'agata' abertzale ta euzko langile asko eleizaratuzan, beren afitian gaur Bilbao'n Zuma'agata'ko endora launa dan, Apaolaza jauna.

**AURERAKO** Igandian befix, kalmendafan ezizan, Rey'tar Marin, eta Miguel'tar Benito, Azkatuta "ametralladora" gudataldeko gudari kementu onen aldeko jaupa izandu zan. Bendi, sende, ingun ta abertzale asko eldu zan elizara.

**ABERTZALE** arren bada otob egintzur, euzko-aldez odola itxuli duten gudari zintzo onen animo aldez (G. B.).

**Laguntzen diegu** atsegabian sendi tamalazueri.

**IZPAR-BELTZA.**—Emengo "refugio" ditzen ditzen etxian, Jauna'ren be' sorian il da 74 urte zitula, Garbela Matalena (Concepción Magdalena) ikalmia (G. B.). Atsegabian laguntzen diegu, bere lagundi ta sendiari.

**ELEIZKIZUNA.**—Igrai zan igandian, karmeldafan eliztan, il onen laugarfen igandiarri dagoekin Deuna Terentzio gintzako eleizkizun polita egin zan. Ote joita batu zan.

**EUGARI ZORIONTZUBAK.**—Ope diatut, Euzkadi, izparinzi eritleri, idazleri, irakurle Bilbao'n arkitzen zeren gipuzkoar' anai-arebari, batez ere guoa ohietan arkitzen diran, euzko-gudari bularitza ta kementazueri.

AIKELIXA. (1)

### Mafiari

**ALINGERTUKUA ZERURA.**—Gure afitian gasti-bete igarota, ber'kuan ligo zan zerura, Gotti'tar Miren Erogo neskatokxu polita, Gotti'tar Eulogi ta Gotti'tar Karloste senar-emazte begikuen alabatxua.

Umia'ren gurasmok, kitar zintzuak diranentz, Jaungoikuek, euren alabekuzgas zeruan inguru bat goyago daitokla ta, dabian atsekabaren erditjan be postu egingo dira. "Umekuek gorantz, aingeruak egaz".

**ERIJOTZA.**—Azken-igartza afitia, larunbatian il zan bat-bateko erijotza Kamiruga'tar Kasto, 71 urte duh zala. Gorpu'ren obreritza, iganda goxan lagun ankogaz egin zan.

Kasto gixajuaren erijotzaz emen be netan tamaldu gura. Jaunik seruan euki begi.

Bere anaya ta kofetia diran Kamiruga'tar Basili ta Madariaga'tar Nikase senar-emazterei, euren atsekabian lagun zayakoaz.

**GEXORIK.**—Elexkuek afitia surkitzen da Ramire'tar Ikerni andera. Oasuna opa ogeteagu.

**AGURTU.**—Astelehen afitia gendin emen "Idiazabal" gudaloroko "lenientia" dan Bilbao'tar Joseba "Goikoko" euzko-aldeko mitor.

Gudari kementu onek, Urdean: deko gud-o'hiari Euzkadi-aldean zintzo-zintzo dufardu... Oiantze "Goikoko", beti kitar eta beti abertzale... Abefija'ren semerik onenak zuek zari...

**JUAN-ETORRIAK.**—Galdakano'tik etorri guran Ozerin'daf Eusebe ta Iturarte'tar Eskarne anderak. —Ereñ'atik etorri zan Ortuzte'tar Jaione emakume bagikua. —Astelehen egon zan amea Kerman Aita karmeldaf lekaldia.

### Mefaka

Gabon jayaz mendit toñtoñan eruan koraguk ixaz dafazan euzko-beretza ilak, aspide bat zabaidu dabe Batzoki'jan eta Gabon'tar egunerako eriko abertzale gusitjak elduko dirala uste dogu bakotzak aldabena emetera.

Mefakalafak, gomutau ondo guda ongas bai-dakize aihbat muti gaste erikuek bertan dirala ta alegindio gaitzen eurali lagunisa apurba' eruateko.

**DABILTZANAK.**—Igandian emen, Iker'tau dogu gure adiskide ona dau Jaan'tar Toma, "Rolando" baita "Ondartzape" euzko-aldeko jatorri. Santa Maria alargunaren jatorrian Lafauri "n "Rolando" zafitubago ere ikuzten dogu beregaz barifiketaldi politjak izan-tzen doguz. Abertzale sutsua da izan be gero! Baita ikuz gubasan Alxand'tar Domeka Gattika'ko asalarri ospetsua ta bere euzkaria.

SOLUBEPE.

**EUZKADI ATZO AZKE TA BEBE BURUBAREN SAUBE ZAN, GAUA ERREBETETAREN MONTAN KOTUTA; HJAB ZEB IXANGO DA? EUZKOTASAK GURAKO DABENA.**

### Muxikā

Arabako afitian surkitzen diran muxikar gudarijeri bijotzeaz Ene eritar matloz: —Noiz etorriko ustea doize zuei jaoteria eritlarri ikusatuzen bat, eginez, atsedan apurba' aritza? Ba, igaro dan aste gusitjan seruan zan

### Durango

**GABON EGUNA.**—Aurten egun juba na igaro dogu. Guda zoritzaletako dala bidez, beste urteetan Gabon gaba alabatua igaroten gendun, gixadiaz gendun auriduzen sajak, baitetik apurba' onak, edari ugari gozozkiaz ospatutik Jauna'ren jayotza. Gaberdiko jaupa ope andikoagaz iragritan zan gure gaitzabaren jayotza Belean, Aintza Donokian ta bakera jayotza gogo opeko gixonen artean. Baina irakurle gendun ludiari ez bada Donokian bago. Gixadi opek eten bakako atsegin afitian badi gura dau (op. ren bago) baba au birtarteke edagoan bitartean inok ez dau lotu eta lotuko bez, batez badi diko namikari eta egipen gaitzabare jarraitzaie gauran bitartean. Egun onetan ikuzi de irakurle, angarria gomuteten ez Josu'ren ludiari etorkundiaz, eta ez ordu onetan gure abertzale igaroten daben aidi estuzgiaz.

Ludiko gixadi osaren Gaitzabare, gure afitian analasuna zofutuko jayotza zan, eta gure analasuna ta namikaz suez otzindu beatean, bera euzkari ta bai gure lagun urkia be. Euzkadi sortzen dira guda, erakiketa, eta zofutuz gusitaki irakurle Gura b' d' d' lotu gixadiaz gendun. Afitia gusitjan gure biltza. Josu gure gaitzabare irakurle ita, euskuna. Askatari gure so'fak guk jure zordunari gaitzabare dauteguzten jor.

Bejengo ezalpean Askatari b' d' d' Jayo da gure Josu Gabaren eridan Afitia ta "Ilija" Dautoz eldunentzen Berotzako Josu Otaitzen danagan. **BORKUNDE.**

Hona hemen bere zurrumuru bat: "Eztakizube ete? Abertzale zintzo-zintzo bat, goia, lerdena, beltzarana, zur [sudur] zorrozduna emen ei dago ta laster Txadonera [elizara] neskatila lirain batekin duakela". Datuokin jakingo ote zuten irakurleak ezkongai nor zen?

### IGETUTXA

Hurrengo asterako, oster, Gautxorik korrespontsal berri bati eman zion lekukoa: Igetutxa. Ekainaren 2an argitaratu zuen lehenengoz. Euskaltzale amorratu zen eta, gainera, euskaldun berria. Bere lehenengo kronika astindu ederra emanenez hasi zen. "Tamalgarrija da

**BEGORA**  
**BATZOKIJA.**—Juan dan domekan batzoki'jan zan eta an autu ziran urte oneko artezkarriak. Onexek dira: Leudakarija, Gafalda'tar Melxor Leudakari-ordia, Landa'tar Josu. Diranina, Orbe'tar Joseba. Zembakarija, Urdanpilleta'tar Joseba Mirena. Idazkarrija, Landa'tar Joseba. Batzokiariak, Azkueta'tar Joseba Mirena, Bedialauneta'tar Eriaketa, Lafazabal'daf Joseba ta Goyenaga'tar Pantzeka. Abertzale zintzo ta sutsuak diranekero, Bilbo'ko baste' onetan abertzaletasuna auzerituko dala-ta geroz guk lagun-tza piska bat inainten ba'dogu.  
**JAYOTZA.**—Azkeneko egunen Landa'tar Genar eta bere emazte Garamendi'tar Miren abertzale sintsuak semetxu bat izan dute, ta Josu Mirena ixen politakaz bati-yatu eben.  
Zorijonak guraso zoriontsuba.  
**DEUN IXIDOR.**—Aurten be, beste urtetan lez "Sindicato Agrícola,"k Deun ospetan onen eguna ospatuteko jai batzuk atonda dauz, meza, nausija, aufesku, afatsaldeko dantza, oturruntza, ta abar.  
Egun edera izanbe da baserriafentrat, baba palta bat oartu dogu, euzko-jolasa tinteruan itxi dabe-edo.  
Jaungoikua'ren laguntzagaz ikusiko doguzanok beste astian jakingo dabez irakurleak.  
**GAUTXORI.**



**Siti Siti**  
Sombriereria 5 - Tfnoa: 944167794 Bilbo (Alde Zaharra)  
Loteria 4 - Tfnoa: 944790406 Bilbo (Alde Zaharra)  
Iturriotz - 9 Tfnoa: 943798182 Arrasate

ERTON DUGU

ERTON DUGU



# Iru gudari Begoñatarren il otoizketak

Ostiralez, Begoña'ko Ama Nesku-tza'ren eleiza politian, nere jaio efi dan Elgoibar'ko Deun Mikel basatxo-no inguruan, eman zuten Euzkadi gatik beren bizia Begoña'ko euzko-gudari gastiak, eta beren animaren aldeko otoizketetara, aipat abertzale Begoña'ko ta Bilbao'ko eldu ziran.

Bertatatu ziran, Bizkaia ta Gipuzkoa 'ko U. B. B.'k eta Begoña'kuak. Bilbao'ko ta Begoña'ko Euzko-Langileak eta E. A. B.'kuak eta abaf eta abaf. Eleiza guztiz betia arkitzen zan.

Requien mesa-jaupa edera abestu zuten Bilbao ta Donosti'ko Euzko-Gaztedi'ko abeslari ospetsuak, zuzendurik Olazola'tar Gabirel donostiarak, txanearlari Gorozati jauna zala.

Azkenjan, "Liberame" abestu zuten. Golan begoz begoñatar euzko-gudari zifonak, eta zuk betiko Jaun Aundi ofek eduki zazuz zure aituzan benetako euzko-semjok.

Eta zuk, irakurle, gogoz otoitz egina Begoña'ko euzko-seme zinduak izan diran Beraz Madariaga'tar Paulin, Zabala Lora'tar Jon, Txintxurleta Zamakona'tar Joseba'ren gogo - alde, eta sendikuok artu zazute nere samin biozkofena.

Artu dogu Elgoibar'lik ispat itun bat Mugurutzat'ar Pantzeka (Patri Esketa) abertzale zara il dela. G. B. Gicajua.

LAGUNTZEN DLAGU ALEGABIAN SENDIKOARI.

**ADONDA**

# LAUAXETAREN BAIMENAZ

Begoñako kronikak Gautxorik hasi zituen Euzkadi egunkariko euskarazko atalean, baina 1935eko ekainaren 2an Igetutzak hartu zion txanda. Bere lehenengo idazkian euskararen egoera aztertu eta gero, desira batekin amaitu zuen: "Jaungoikuaren laguntzaz, hurrengo astietan 'Gautxori' eta 'Lauaxeta'k laketuten badauste zeozer esango dogu gai onetzaz. Arketsi ba". Lauaxeta Euzkadiko euskararen ataleko ardurduna zen sasoi hartan. Eta Igetutzari berehala erantzun zion, bere testuaren azpian ohar hau erantsiz: 'Uarra. Zu lako mutil askarrai 'Lauaxeta'k laketuten dautse. Euzkeldunbarri bat zarala inork eleuke esango. Adibide ona emon dauzkuzu!'. Horra Lauaxetak euskara ikasi zuen bati bidalitako lorea!

ez ezta gauza eurentzat. Eta ederra da gero, euzkeraz ixena eruan eta euzkera ez-jakitia ¿Ori zer dala-ta? Gurasuak abertzaliak dirala erakusteko bakarrik?".

Oso lantzean behin izan bazen ere, Igetutzak 1936ko uztailera arte jarraitu zuen testuak argitaratzen. EAJren barruko berriak (Uri-buru batzarra, batzokia, Emakume Abertzale Batza, Euzko Gaztedi,...) eta jaiotza eta bataioak. Kronika baten aitortu zuenaren arabera, Gautxorik kontaktzen zizkion berriok. Gerraren ezteandak Igetutzaren luma isilarazi zuen.


**AIXERIXA**

Begoñako hirugarren kronikaria Aixेरixa izenagaz idatzi zuen eta gipuzkoarra zen, berak aitortu zuenaren arabera. Artean gerra iziotuta zegoen. Jakina, bereak gerra kontuak izan ziren, gehien bat. Esate baterako, 1936ko udagoieneran Elgoibarren hil ziren hiru begoñar gudarien hiletan berria. Honela amaitu zuen bere testua: "Eta zuk, irakurle, gogoz otoitz egizu Begoñako euzko-seme zinduak izan diran Beraza Madariaga'tar Paulin, Zabala Lora'tar Jon, Txintxurleta Zamakona'tar Josebaren gogoz alde eta sendikuok artu zazute nire samin biozkorrena".

zera. Kronikariaren iritziz, hura ez zen gazteen errua bakarrik, gurasoek ere bazeukaten zer esanik eta ez gutxi. "Umetxu bat ixaten dabenian, beriala euzkerazkok ixenakaz ugutzau edo batiyauten dabe, ta gero erdereira irakasten dautsae, ta euzkera bixi dan ala

testuak argitaratzen. EAJren barruko berriak (Uri-buru batzarra, batzokia, Emakume Abertzale Batza, Euzko Gaztedi,...) eta jaiotza eta bataioak. Kronika baten aitortu zuenaren arabera, Gautxorik kontaktzen zizkion

**Taberna Dordoka**



Pza. San Martín de la Ascensión  
**SANTUTXU**

**Agapi**

Dekorazioa eta eskaiola  
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk  
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114  
**SANTUTXU - 48006 BILBO**

**santutxuko herriko taberna**

Iturriaga 96.  
Gosari bereziak:  
Kalea + pintxoak 1,50 €.




Euskal Herria  
**AURRERA!!**

# e i k a r r i z k e t a

## CARLOS

"Herri sentimenduak urtero puntu batzuk ematen dizkio Athletici"



Carlos Ruiz Herrero ~~hemeretzi~~ urte zeuzkan futboleant hasi zenean. Hiru urte geroago, Athleticean hasi zen jokatzeko. Begoñako aurrelariak hamaiak denboraldi bete zituen lehen ekipoa. ~~Bitarte horretan Kopako final bi eta UEFAko final bat jokatu zuen. Eta Espainiako Ligako pitxitxia izan zen, 1975ean. Mahatsorria gaur egun kirol medikua da eta Espainiako eskubaloit selekzioarekin lan egin du olinpiadetan eta munduko zein Europako txapelketetan. Berarekin egon gara, sasoi loriatsuagoak gogora ekartzen eta gaur egungo trantze larriak aztertzen.~~

Testua: : Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Arzona



### Zure oroitzapenetan non ikusten duzu zure burua lehenengoz futbolean?

Umetan ikastetxean askotan jokatzen genuen futbolean. Nik Berriotxoan ikasi nuen, baina ikastetxe zaharrean, 'Chamizo'n. Begoñan bizi nintzen eta batzuetan etxetik irten, kalean harri bat ostikoz jotzen hasi eta berarekin ikastetxeraino ailegatzten nintzen... Kontua da hamabi urterekin Langraitzera joan nintzela, menesianoekin, eta han hemeretzi urte bete arte egon nintzen. Etxera itzuli eta orduan kirolen baten hasteko gogoaz nengoen. Anaia eta biok Begoña futbol taldean aurkeztu ginen baina ekipoa osatuta zeukaten eta ez gintuzten onartu. Gero Morazan futbolariak behar zituztela entzun eta bertara jo genuen. Lehenengo partidua lagunartekoa izan zen, zer eta Begoñaren kontra. 2-1 irabazi genuen eta nik sartu nituen gol biak. Denboraldi hura Morazan egin nuen, erregionalean.

### Beraz hemeretzi urterekin hasi zinen futbolean?


Bai, nirea ez da kasu normala, ni ez nintzelako beheko kategorietan ibili. Morazan asko nabarmendu nintzenez, Indautxuk eta Getxok fitxatu nahi izan ninduten. Indautxu bigarren mailan zegoen eta eurekin pare bat egunez entrenatu eta gero niretzat haiek ur handiegia zirela ulertu nuen. Getxora joan nintzen. Hirugarren mailan zegoen eta han denboraldi bat eta erdi egin nuen.

### Han ere nabarmenduko zinen...

Hirugarren mailako golegilerik onena izan nintzen eta bigarren denboraldiaren erdian Athleticen fitxatu ninduen Bilbao Athleticen jokatzeko. Zubiaga lehenengo ekipora igo berria zegoen eta aurrelari bat behar zuten. Horrela heldu nintzen Athleticera. Lehenengo ekiporekin jokatzeko Ronnie Allenek deitu zidan. Sinesgaitza zen niretzat, futboleant hiru urte lehenago hasi nintzen eta!

### Eta Athleticen ia hamaika urtez egon zinen...

Bai, 1981 urtera arte. Ondoren Espanyolera joan nintzen eta han urte bi egin nituen. Erabaki hartan



futbolaz aparte bazen besterik: nik medikuntza ikasi nuen eta kirol medikuntzaren arloan Katalunian gure aurretik zebiltzan. Han urte bi eman nituen futbolari gisa baina mundu horretan sartzeko eta ikasteko aprobetxatu nuen eta gero beste urte batez han gelditu nintzen. Harrez gero, kirol mediku gisa nabil eta, besteak beste, Espainiako eskubaloi selekzioarekin egin izan dut lan, olimpiada eta munduko zein Europako txapelketa arrakastatsuetan gainera.

### Athleticera heldu zinenean nortzuk zeuden aurrealdean?

Aurrean Argoitia, Arieta II, Zubiaga,

Uriarte eta TxetxuRojok jokatzen zuten. Argoitiak urte bi geroago hartu zuen erretiroa, Zubiaga defentsara jaitsi zuten eta aurrelari peto-peto moduan Arieta eta biok gelditu ginen. 1973an Arieta eta Uriartek alde egin zuten eta ni gelditu nintzen titular.

### Garai hartan izan zen zure urterik onena, ezta?

Hurrengo denboraldian, 1974-1975. Aurrekoan Pavic zegoen entrenatzaile eta esaten zidan ea zelan jokatu ahal nuen eskuin belauneko meniskorik gabe. Denboraldi hartan batzuetan jokatzen nuen, beste batzuetan ez... Hurrengoan, ostera, Rafa

Iriondo etorri zen eta hark titular jarri ninduen, babestu ninduen eta Ligako 'pitxitxi' izan nintzen.

### Hemeretzi gol sartuta...

Bai. Ederto.

Jende askorentzat Carlos buruaz gol asko sartzen zituen aurrelaria zen. Horrelakoa zen benetan? Sarritan entzun izaten dut. Behar bada jendeak akorduan buruz sartutakoak dauzka ikusgarriagoak direlako. Baina pitxitxi izan nintzen urtean 19 goletatik 5 izan ziren buruaz eta beste 14 oinekin. Ni ez nintzen baloiarekin trebe-trebea, baina ezta txar-txarra ere. Hala Getxon nola

Athleticen bertan partidua batzuk zelaierdian jokatu nituen. Ni errematatzaile peto-petoa nintzen, hanka biko errematatzailea gainera.

### UEFAko finalean, Juventusen kontra, 1977an, San Mameseko partiduan bigarren gola zurea izan zen...

Bitxia da kontua. Ez dut lortu gol horren telebista irudirik. Ez da inondik agertzen. Dirudienez gola sartu nuenean antza telebista emisioa eten zen...

### Bai, amatatu ei zen...

ETBn orain dela gutxi Athleticen historiaren gaineko erreportaje zabal

bat egin zuten eta bazter guztiak arakatuta ere ez zuten gol horren telebista irudirik lortu. Madrilen-eta egon ziren galdezka baina alferrik. Ez dakit Italian egongo ote den. Pena handia ematen dit. Buruan daukat. Misericordiako mandatik kornerra atera, ni atzetik sartu, jo eta eskudratik sartu zen baloia. Begiak itxi eta jokaldi hura ikusten dut. 2-1ekoa izan zen...

### Ze oroitzapen daukazu final hartatik?

Gazi-gozaok. Orokorrean begiratura, Juventus ez zen gu baino gehiago izan. Han 1-0 irabazi gintuzten, baina partidua orekatua izan zen. Hemen, ostera, zorte txarra eduki genuen: 5. minuturako gola egin ziguten eta hortik aurrera hiru edo lau egiteko moduan egon ginen. Azken minutuetan baloi bat langara bota genuen... Alderdi horretatik urte xelebrea izan zen...

### Kopako finala ere antzekoa izan zen...

Kopako kanporaketa guztiak goleatuz irabazita heldu ginen finalera. Elcheri hiru, Sevillari lau, Salamancari finalerdietan sei gol hemen eta hiru han... Nik kanporaketa hartan Salamancari sei gol sartu nizkion, lau hemen eta bi han. Itzel ondo genbiltzan. Madrileko finala hasi eta hogeigarren minutuan gola sartu nuen. Orduan pentsatu nuen: 'Listo dago! Finala gurea da!'. Baina gero Lopez izeneko txikitxo batek gol bi egin zigun... buruaz!! Pena galanta, bai horixe, baina irabazi ezinik gelditu ginen.


### 1973ko finala ere jokatu zenuen, Castellonen kontra...

Bai. Bigarren zatian atera nintzen Anton Arietaren ordean. 2-0 irabazi genuen.

### Lehenengoz, Athleticen jokalaribelaunaldi bat erretiratu da ezer irabazi barik eta final bat bera ere jokatu barik. Zergatik?

Arrazoi asko dira. Alde batetik, jaiotza tasa jaitsi da, beraz non aukeratu gutxiago dago. Beste aldetik, jendea eroso-eroso bizi da gaur egun, sakrifizioa urrutiko kontua da. Horregatik,





gero eta gaitzagoa da pertsona bat ekartzea eguneroko entrenamenduetara, norberaren burua estutzera, ... jendeak nahi jokatu baina ondo pasatzea, asteburuetan lagunekin ateratzea... Eta gainera, gure saioan ekipoko atzerritar bi baino ez zeuden. Hori gutxika-gutxika zabaldu da eta gaur egun edonork fitxa ditzake berme handiko jokalaria gazteekin arriskatu barik. Hori Athleticcek bakarrik egin behar du. Horrek guztiak Athletic besteak baino makalago paratu ahal du. Baina urtero-urtero, bigarren mailara doazenek atzerritarrik dauzkate. Atzerritarrik izatea ez da bermea. Athleticcek, ostera, badauka beste inork ez daukana: klub eta herri sentimendu indartsua. Horrek eta zaletuen babesak urtero puntu batzuk ematen dizkio Athleticci. Elkarrekin borrokatzeko sentimendu horrek denboraldian zehar puntuak ematen dizkio...

**Eta aurten bereziki...**

Bai, ageriago dago, aurten denok argi daukagulako lehenengoz bigarren

mailara jaisteko aukera erreala dela. Egoera hori iraultzeko indarrak batu ditugu eta esan dugu: gugatik ez da izango. San Mamesen oso nabarmena da. Egoera horretan bertan beste klub askotan publikoak bizkarra ematen die bere jokalariei. Hemen ez, denok batera goaz aurrera egiteko.

**Carlosek zelan bizi ditu horrelako partiduetak?**

Gainerako Athletic zaleak bezalaxe. Klubeko jokalaria izan naizelako igual puntutxo bat gehiago sentitzen dut, baina alde txikia dago, Athletic denok bihotz-bihotzean daramagulako. Bazkidea naiz, nire semeak bezalaxe, eta San Mamesera joaten naiz.

**Zergatik heldu da Athletic holako egoera batera?**

Lehen esan dugunaz gain, Javi Clementek esan du nortasun ezaugarri batzuk galdu ditugula. Esaldi horrek ederto laburbiltzen du. Denboraldi duinak egin ostean, Ezquerro eta Del Horno joan izanak ez du denboraldi

honetako ibilera justifikatzen. Entrenatzaile berria eduki dugu, ideia berriak ekarri ditu, eta emaitzek huts egin dutenean beldurtu gara, zeri heldu jakin barik gelditu dira jokalaria... Beste ekipo batzuk ohituta daude baina gu ez gara inoiz holako trantze baten egon, jokalaria asko gazte-gazteak dira, ... Horrelako dinamika baten sartzen zarenean irtetea oso gaxa ei da. Nik ez dakit, jokalaria moduan ez naizelako inoiz horrela egon, baina Javi Clementek heldu bezain laster abisatu zuen denboraldi osoa beharko genuela. Holako egoera baten sartu ezkerro, ez da arrazoi bakar baten ondorioa. Faktore asko izaten dira eta horiek denak konpontzea ez da batere samurra.

**Athleticen aldeko sentimendua gaztetxoaren artean makaldu dela uste duzu?**

Ez. Athleticcek tradizio itzela dauka atzetik. Bestela, San Mameseko aurtengo giroa ezinezkoa izango litzateke.

**Athletic berriz ere txapeldun, noizko?**

Ez dago jakiterik. Baina denboraldi hau salbatuta, datorren urtea oso diferentea izango da. Eskarmentu gehiago eta urtebete gehiago edukiko dute eta hobeto ibiliko dira. Proba hau gaintitu ezkerro, izan liteke. Kalitateak eduki badaukate: Yeste, Orbaiz, Aduriz, Iraola, Amorebieta, Ustarritz, ... jende gazte horrek datorren urtean maila hobetuko emango du. Beraz, kopako finala behintzat posible da. Iaz merezi izan genuen. San Mameseko finalerdia ahaztezina izan zen. UEFA garaiko partiduetak ekarri zizkidan gogora. Oilo-popa jartzeko modukoa izan zen.

**Bederatzi galdera labur**


- Liburu bat: 'Los pilares de la tierra' (Ken Follet)
- Film bat: 'Doctor Zhivago'.
- Kantu bat: Beatlesen garaikoa naiz baina ez daukat estilo kutun bat.
- Kirol bat: Futbola eta, oro har, talde kirolak.
- Janari bat: Edozein.

- Mendia ala hondartza: Mendia.
- Leku bat: Askok ezagutu ditut baina aukeran, gure herria.
- Aurrelari bat: Gaur egun, Shevchenko.
- Entrenatzaile bat: Ronnie Allen, berak eman zidalako debutatzeko aukera.

**Zelan ikusten dituzu makro-botiloiak?**




**BORJA (BILBO ZAHARRA)**  
BESTE BARIK. BETI EGINDA. NI KONTRAKOA NAIZ, GUZTIZ. BURUTIK PASA BE EZ HALAKO BATERA JOATEA!



**EGOITZ (TXURDINAGA)**  
HEMEN LITROAK DEITZEN DUGUN HORI ASPALDIKOA DA. ORAIN BESTE LEKU BATZUETAN MODAN JARRI DELAKO HEMEN KENDU NAHI DUTE. ORAIN ARTE EGON DA ETA EZ DA ARAZORIK IZAN.



**MARTA (TXURDINAGA)**  
EGIA ESAN, HORI BETI EGINDA DUGU ETA EDATEA OSO GARESTIA DA. MODA BERRIA DA. NIRI EZ ZAIT GUSTATZEN BAINA ADIN HORREKIN IGUAL EGINGO NUKE.



**JORGE (TXURDINAGA)**  
ONDO IKUSTEN DUT. ALKATEAK EZ DAUKA ARRAZOIRIK MAKRO-BOTILOIAK DEBEKATZEKO.

**ANDONI (TXURDINAGA)**  
NIK EZ DUT ONDO IKUSTEN BAINA TXARTO ERE EZ. TABERNETAN PREZIOAK ABUSIBOAK KOBRATZEN DITUZTE. NIK EZ DAUKAT PROBLEMA HORI LONJA BAT DAUKAGULAKO BAINA JENDEAK KALEAN BETI PRIBATU DU.



**AMAGOIA (SANTUTXU)**  
ONDO. TABERNAK OSO GARESTIAK DIRA. KUBATA BAT, SEI EURO. HORI BAI, JENDETZA BATZEN DENEAN GAUZA ASKO APURTZEN DITUZTE. BAINA HORI BILBON EZ DA GERTATU.

**SARA (SANTUTXU)**  
EGIA ESANDA, ONDO IKUSTEN DUT. GAZTEEK EZ DEZATELA HAIN-BESTE DIRU GASTA ETA EDAN DEZATELA NAHI DUTEN LEKUAN. ORAIN KALEAN EPELA DA.



**IRENE (TXURDINAGA)**  
NIK EZ DUT TXARTO IKUSTEN. POLITIKOEN INPORTANTZIA LARREGI EMAN DIOTE. ASPALDIKO FENOMENOA DA BAINA ORAIN ESKALA HANDIAN. BAINA ETXEBARRIAN BATZEN EZ BADIRA BAKOITZAK BERE ALDETIK EGINDU.




Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Eskailera mekanikoez lotuko dute Udaletxea eta Etxebarria parkea

Ehun metro luze izango dira eta 30 metroko altura saihestuko dute

**Bilboko Udalak eskailera mekanikoez lotuko ditu Ernesto Erkoreka plaza eta Etxebarria parkea. Ehun metro luze izango dira eskailera horiek eta 30 metroko altura saihestuko dute. Behealdeko etxeen eta parkearen artean ur-jausi bat eta berdeguneak atonduko dituzte.**

Gas plazako urbanizazio lanak aurrera doazen heinean, azken diseinuen berri eman dute Bilboko Udalaren arduradunek. Jakina denez, behealdean etxebizitzak eta garajeak egiten ari dira. Etxe multzo hori eta Etxebarria parkearen arteko lotura zelakoa izango den jakinarazi dute orain.



Etxebizitzak egiteko lanek muinoari haginkada ederra egin diote. Ondorioz, itxura aldaketa itzela sufritu du alderdi guzti horrek.

**ETXEBIZITZAK**  
Guztira 211 etxebizitza egiten ari dira Gas fabrika egon zen orubean eta inguruetan. Enpresa eraikitzaileak jakinarazi duenez, 30 saldu barik daude oraindik. Hain zuzen, Udaletxetik

hurren dauden pisuak dira. Etxebizitarik txikerrenak 45 metro koadro dauzka. Handienak, oster, 140 metro koadro zabal dira. Proiektu osoaren aurrekontua 70 milioi eurotik gora dabil.

Bestalde, eraikitzaileak Ernesto Erkoreka plazako etxebizitzaren aurrealdeak zaharberritu beharko ditu. Lehenengotan etxe guztioi itxura bat ematekotan egon ziren baina auzokoen kexa biziak aldarazi du Bilboko Udalaren agintarien iritzia.

Ez dira hauek Bilboko lehenengo eskailera mekanikoa izango. Besteak beste, Santutxun eskailera mekanikoez lotu zituzten Remigio Gandasegi etxe multzoa eta Karmelo kalea.

Beste aldetik, Bilboko Udalak obra batzuk egin ditu Etxebarria parkean, bidegorriak sortuz eta arbolak landatuz. Honez gero, parkearen fisonomia gero eta osatuago dago.

Bilboko Udalak eta enpresa eraikitzaileak (Metrovacesa-Jauregizahar enpresen elkarte) Jose Ignacio Linazasoro arkitektoari eman dio proiektua egiteko ardura. Linazasoro, besteak beste, Ingeniaritza Eskolako eraikin berriaren egilea da.

### CACHO TABERNA

Bilboko Udalaren aurreikuspenak betetzen badira, datoren irailan hasiko dira lanak. Urtebete beharko dute dena amaitzeko. Horrela, etxebizitzekin batera amaituko dute. Lehenengo zeregina etxe bat eraitea izango da. Hain justu, gaur egun Cacho taberna dagoen eraikina birrinduko dute.

Gainera, Bilboko Udala Zumalakarregi etorbidearen hasiera zabaltzen eta txukuntzen ari da. Obren ondorioz, espaloiak zabalagoak izango dira eta, orokorrean, oinezkoentzat alderdi erosoagoa izango da. Orainsu, biribilgune bat paratu dute Erkoreka plazaren erdian trafikoko modu errazagoan antolatu ahal izateko.

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos Instalador  
Presupuestos Autorizado

**J. Ruiz**

\*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones  
\*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo  
\*Perfiles automáticos y video perfiles  
\*Aire acondicionado

Juan de Gispola nº9 Lanza 48004 Bilbao Fax: 944111652-Tel: 656703853

**BI-96.0-FM**  
Bilbo Hiria irratia

[www.bilbohiria.com](http://www.bilbohiria.com)



### MARTXOAREN 9KO GREBA.-

Ezker abertzaleak deitutako greba eta mobilizazio egunari emandako erantzuna gorabeheratsua izan zen gurean. Santutxuko Iturriaga eta Karmelo kaleetan denda asko itxita egon ziren, baita Uribarriko alderdi batzuetan eta Atxurin ere. Piketeak ibili ziren goizean, Ertzaintza alboan zeukatela. Txurdinagan, Otxarkoagan, Begoñan eta Santutxuko beste kale batzuetan, normaltasuna nagusitu zen. Suzko barriak ere izan ziren hala Iturriaga kalean nola Atxuri eta Bolueta arteko trenbidean.

### MORAZA PLAZA BERRITU DUTE.-

Moraza plazako lanak amaituta, Matiko auzoak oinezkoentzako esparru berri bat irabazi du. Orain ezin da bertan autorik utzi eta lehengo aparkalekuen orde zuhaitzak eta eserlekuak paratu dituzte. Argiztapena ere hobetu dute. Bilboko Udalak 347.000 euro gastatu ditu lanok egiteko.



### BESTE HILDAKO BAT ZUMALAKARREGIN.-

Martxoaren 10ean beste pertsona bat hil zen Zumalakarregi etorbidean istripu auto batek jota. Domeka hartan 54 urteko gizon bat izan zen istripuaren biktima. Arratsaldeko zazpi eta erdiak aldera gertatu zen, Zabaldide eta Zumalakarregiren arteko loturan. Uribarriko Gure Etxea auzo elkarteak gertatutakoa salatu azken urteotan hogeitik gora istripu eta lau hildako gertatu dira- eta autobidea lur azpian sartzeko eskatu du.

**ASTE SANTUA (12-17)**

AMSTERDAM	358,00 Euro
PARIS	253,00 Euro
LISBOA	265,00 Euro
SALOU	231,00 Euro
GRANADA	280,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net  
**Izargi Bidaiak**

GRUPO STAR Iturriaga, 69  
VIAGES www.ibiltari.com Tel. 94 473 00 45  
48004 SANTUTXU - BILBO Fax 94 412 07 28

★  
**KAIKU**  
Munduko Herrien Betea

Asuaga 1 Santutxu

**ADI**  
ASESORIA  
FISCAL · CONTABLE · LABORAL  
JURIDICO · MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**







### SORGINTXULOREN ALDEKO ALDARRIAK DIRAU.-

Egunotan egiten ari diren epaketak salatzeko ehunka lagun manifestatu ziren martxoaren 16an Santutxuko kaleetatik. Sorgintxuloren defentsan aritutako gazteak dira auzipetuak eta salaketak bertan behera uzteko eskatu zuten manifestariek. Denetara 70en bat gazte salatuta daude.

### INGENIARI TREBEAK.-

Zurbaranbarriko Basilio eta Inma Ovejero neba-arrebek irabazi dute izozki-makiltxo-ez egindako zubirik sendoenen eta politenen lehiaketa. Eta bi arlo horietan irabazi zuten: ederrena izateaz gain zama handienari eutsi ziona izan zen: 251'5 kilo hain zuzen. Ingeniaritzako 4. mailako ikasle bi hauek iaz ere estetikaren bigarren saria jaso zuten. Benetan trebeak, mahatsorriok!



### GATIBUKO GAIZKA, PERKUSIO AFROLATINOAN.-


Bilbaomusikak udaberriko tailerrak abian jarri berri ditu. Besteak beste, Karibeko dantzak, areto dantzak, txalaparta eta perkusio afrolatinoa jorratuko dituzte tailerrotan. Azken horretako irakasle, Gaizka Salazar izango da. Mahatsorria Gatibu taldeko bateria jolea da. Ikastaroak apirila, maiatza eta ekainean zehar banatuko dira.

**mm**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Lara Arruti,  
Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikaslea.

*"Komunikazioaren gizartean bizi garenez,  
ezinbestekoa komunikazioaren legeak ezagutzea"*



[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)



**MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertan**

- Urtzi Urrutikoetxea**: "Mugizko 'bertan' erromen jasotzen ditut kontzertuak"
- Miren Agur Meabe**: "Euskal literaturan aniztasuna eta maila altua dago"
- Eladio Montiel**: Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria
- Mikel Alvarez**: mahatsorri bat Everesteko tontorrean
- Imanol Agirre**: "Badut noizbait txapela janariak asperantzarik"

**DOHAIN**

# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): .....

**DOHAIN** **DOHAIN**

Sinadura

## PEÑALTA (1140 M.) ALDEACUEVA (KARRANTZA)

Bilbotik Karrantzara joango gara eta Ambasaguas (La Estación) auzora heltzerakoan gasolindegia dago, bertan ezkerretara doan errepidetik joanez laster helduko gara Kontxa auzoko plazara. Plaza horretan Karrantza ibarreko udaletxea dago eta ibarreko errepide gehien topagunea da. Handik eskuinerantz Lanestosarako errepidea ateratzen da baina guk errepide hori hartu gabe zuzen jarraituko dugu. Aurreratxoago eta ezkerretara Lanzas Agudaserako bidea dago baina alde batera utzita aurrera joko dugu. Pixka bat aurrerago zubi batean eskuinaldera sartuko gara. Han gezi bat dago Aldeacueva auzorantz bideratzen duena. Bide horretatik sartuko gara.


Aldeacuevan (Kontxa-tik 6 kilometrotara) muino baten gainean bi dorre dituen eliza dago, Mexikoko katedralaren kopia dena indiano batek eraikiarazia. Ondoan, harkaitzpean, kobazulo bat. Bertan bidebanatze bat aurkituko dugu. Bide bat La Presa auzora bideratzen da eta bestea, geuk hartu behar duguna, alderantz eta gorantz La Calera del Prado, Prado eta bertan agertu ez arren, Lanestosarantz.

Bide hori hartuta, (kontuz bide honekin, zorua oso txarto baitago) 4,5 km.-tara Campa Calero (A) deritzon agergune zabalean egongo gara. Han utziko ditugu autoak. Handik oinez etxetxo (bertakoek Casita deitzen dute) baten ondotik ezkerretara dagoen basabide zabaletik hasiko dugu igoera. Basabide hau jarraituz, eta beste basabideari jaramonik egin gabe hiru ordu laurdenean lepo handi batera helduko gara.

Toki hori hesiz inguratuta dago eta saiei janaria emateko erabiltzen dute. Sarrerako ate ondoan Sasien Jantokia jartzen duen txartel bat dago (B). Bertara, berez hiltzen diren animaliak eramaten ditu Baso Zerbitzuak eta horrela alferrik galdu beharrean saiek janaria lortzen dute.

Handik eguraldi argiz txabola bat ikus dezakegu goialdean. Nahi badugu artez eta zuzen igo ahal dugu, baina guk ordea basabidetik jarraitu genuen txabola (C) hartara heldu arte (ordu laurden batean).

Eskuinaldean Santipiñia mendia dago, larrean



zehir igoaz lortu genuen (5 minutu) tontor hori. Bertatik oso ondo ikusten da Karrantza ingurua, Bizkaiko udalerririk zabalea. Ondoren berriro basabidera jaitsi eta aurrerantz jarraituz hamar minutu inguruan basabidea utzita eta ezker aldera landan zehar laster Peñalta mendian kokatuko gara (1.140 m.). Txartel kutxa moduan, danbolina, zotza eta txistua daude baita beraien gainean txapel handi bat ere.

Ibilaldi osoa ordu bat eta laurden batean egin daiteke.

**Sastreria PEDRO**

**IRUDIA SORTZEN DUGU**  
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE

GABRIELARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

☎ 94 412 82 74

**MESÓN**  
TURETXE

Santutxuko poteo gunean





Pirritx eta Porrotx martxoaren 21ean izan ziren Begoñako udaltegian.

**Begoñako udaltegiko eta Tiboliko eskolan egin ditu bere saioak 'Ikusi eta ikasi' programak gurean. Martitzenero jarri die hitzordua ume mahatsorriei euskarazko ikuskizunekin gozatzeko. Eta, egia esanda, a zelako gozatu hartu duten! Saio ia guztietan aretoa txiki gelditu da, eta txikiak nagusi izan dira. Ikusi, bestela, orri bi hauetako argazkiak.**

Testua: J Larrazabal  
Argazkiak: Iñigo Azkona

Bilboko Udalak umei aisialdia euskaraz emateko aukerak eskaini gura dizkie 'Ikusi eta ikasi' programaren bidez. Aurten otsailaren 15etik apirilaren lehenengo astera arteko egitaraua osatu dute. Bigarren urtea da, 'Ikusi eta ikasi' iazko ekainean hasi zuten eta. Bada, aurtengo erantzuna ezin hobeagoa izan da, saio ia guztiak areto bete umeren aurrean egin dira eta.

Ume mahatsorriek martitzenero eduki dute saiorik. Orain arte pailazoak, ipuin kontalariak, magia eta antzerki saioez gozatu dira haurrak. Eta ikusitakoa ikusita, ederto baten eman dituzte arratsalde horiek. Izan ere, saio gehienetan ume guztiak barruan hartzeko arazoak izan dira, aretoak bete-beterik izan direlako.

#### KINTXO ETA PORROTX

Martxoaren 21ean Pirritx eta Porrotx pailazoen txanda izan zen. Hitzordua arratsaldeko seietan zegoen jarrita. Hala ere, arinago hasi zen jende multzoa hurrera-



tzen: aita-amez (edo izeko-osabez, nork daki) lagundutako ume piloak. Ikusmina itzela zen eta antolatzaileek leku gehiago egiteko umei baino ez zieten aretora sartzen utzi.

kizunak izango dira apirilaren 6an eta 8an.

Leku bi horietan ere, umeen erantzuna zoragarria izan da. Astero-astero umez lepo bete dira aretoak.

Hala ere, ez zen nahikoa izan. Hamar minutu falta ziren saioa hasteko eta ume batzuk etxerako bidean zihoazen, bekoki ilunaz, gurasoen kontsolamendu berbez lagunduta.

Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Kintxo eta Porrotx' saioarekin heldu ziren Begoñako udaltegira. Ordubete luzean umeek ez zuten begirik kendu. Eta aretora sartu ziren gurasoek ere ez.

#### AURRERANTZEAN

'Ikusi eta ikasi' egitaraua ez da oraindik amaitu. Apirilean ere bada zer ikusia Begoñako udaltegian. Izan ere, apirilaren 4an Auskalo taldea 'Skatroiak' ume berbenarekin azalduko da arratsaldeko seietan. Horrez gain, hala Deustu-ko Bidarten nola Zazpi Kaleetako La Bolsa jauregian ikus-

ander  
eta  
gaur

APIRILAREN 28 an ostirala 19:30ean

KOMIKLIPIA

HARRAPA  
ZAIK

MARRAZKIAK ETA JATORRIZKO IDEIAK:  
Iñaki Martiarena "mattin"  
AKTOREAK: Ixabel Agirresarobe  
Egoitz Lasa  
MUSIKA: Joxe Mikel Gorostidi



HARRAPA ZAIK

BILBO ROCK aretoan

SARRERA  
2EURO

SARRERA SALMENTA  
Zabalguneko Gazte Informazio Bulegoan  
Bilboreken emanaldi egunetan  
BBKren orotariko kutkazainetan

B  
Bilbao

BILBAO  
BILBAO

SARRERA  
SALMENTA





## IKASTETXEEK ETA ELKARTEEK EKITALDI BETE ASTEA ANTOLATU DUTE

### Euskararen Astearen seigarren edizioak gaztetxoak euskarara hurreratu nahi ditu

**Apirilaren 1etik 7ra Txurdinaga eta Santutxuko ikastetxeak eta azken auzo horretako kaleak euskarazko ekitaldiez beteko dira. Musika, dantzak, zinema, kirola, bertsoak eta jokoak barreatuko dira gaztetxo mahatsorriak euskarara hurreratzeko ahaleginean.**

Testua: **H. O.**

Argazkiak: **Txema Camara**

Euskararen Astearen seigarren edizioa izango da aurten. Eta, egia esanda, gero eta erreferentzialagoa da. Bost ikastetxek sortu zuten 2001 urtean. Aurten hamasei dira indarrak batu dituztenak. "Gure sorpresa izan da azaldu du Tasio Erkiziak, batzorde antolatzaileko kideak, hain dinamika onean biltzea. Normalean ikastetxe bakoitzak nahikoa lan dauka bere teilatupean".

Astearen filosofia gardena da: euskararen erabilpena ez da bakarrik ikastetxeen kontua. Inguru hurbilak zer esan handia dauka. "Gazteek ikusten badute auzoan ez dela euskararik, euskara ikasgelako hizkuntza izango da", argitu du Erkiziak. Horrek irakasleen lana gaiztotzen du eta erabilera blokeatu egiten du. "Gizartearen babesaren ezean, euskara berreskuratzea oso zaila izango da".

Euskararen Asteak hiru zutain dauka: Txurdinaga eta Santutxuko ikastetxeak, Santutxuko elkarteak eta instituzioak. Elkarlan horren ondorioa da Euskal Herriko hiriburuetan antzekorik ez daukan proiektu hori. Edozelan ere,

Tasio Erkiziak beste nabardura bat erantsi du. "Euskararen Astea ez da nagusiek gazteentzat prestatutako egitarau bat. Hasieratik bertatik gazteen inplikazioa bultzatu nahi izan dugu. Nerabeak eurak protagonistak izatea. Lortu, hein baten bakarrik lortu dugu, baina horretan dihardugu".

#### EGITARAUA


Jakina denez, Euskararen Asteak hiru arlo dauka. Alde batetik, eskola bakoitzak bere aldetik egindako ekitaldiak. Bestetik, eskolen arteko ekitaldiak. Eta, azkenik, auzoan bertan denentzat egindakoak. Hasi, horrelaxe hasiko da apirilaren 1ean, auzo egunarekin. Mendi ibilaldia izango da lehenengo, futbito partiduak gero eta ordu-batetik aurrera bizikletaz eta patinez egindako kalejira koloretua. Ondoren, Arkaitz Estiballesek pregoia irakurriko du. Egunean zehar, albokarien jaiak.

Hurrengo egunean, dantzari eguna ospatuko dute. Goizean dantza saioak izango dira Santutxuko plaza guztietan eta arratsaldean Etxeberria plazan egingo dute agerraldia. Eguerdian, herri bazkaria.

Aste barruan, hamaika ekitaldi egingo dituzte ikastetxetan. Ume olgetak, kantu lehiaketak, pailazoaren emanaldiak, zinema, Jon Maiaren hitzaldia, bertso eguna (ostegunean), antzerkia -Teresa Lopez de Muniain-,... Ostiralean kalera aterako dira olgetan egitera... euskaraz.

#### KOADRILAK

Urrutiagora begira daude, hala ere, Euskararen Astearen



antolatzaileak. Izan ere, jakin badakite ahalegin hori denboran luzatu behar dela. Eta horretan dihardute. "Aurten, -azaldu du Tasio Erkiziak- koadrilen artean sare bat osatu nahi dugu euskararen erabilera sustatzeko". Koadrila horiek 17-25 urte bitarteko gazteek osatuta daude eta denak edo ia denak euskaldunak dira. Ohituren edo ingurunearen eraginez erdaraz egiteko joera irauli nahi dute. Proiektua hastapenetan dago oraindik.

Euskararen Asteak Txurdinagako eta Santutxuko hainbeste ikastetxe eta elkarte batzen ditu: Karmelo Ikastola; Gabriel Aresti Institutua; Txurdinaga Artabe Institutua; Txurdinaga Behekoa institutua; Maristak - El Salvador ikastetxea; Mina del Morro herri ikastetxea; Angeles Custodios ikastetxea; Luis Briñas herri ikastetxea; Karmelo- Solokoetxe BHI;



**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

**Kafe**  
**Mañari**  
Médico M. Pedro Cortés, 9  
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

**GOJIAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa  
**ANDAMIO BARIK**  
**TELEFONOAK:**  
630 08 09 38  
659 45 16 22



# horoskopoa



**Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**

Ez da erreza izango baina zu bezain ondo bizitzen ahaleginduko gara. Gure idoloa zara!



**Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**

Zuk dekozun bekokia! Horoskopoa mezuak bialtzeko erabiltea be!



**Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**

Taketa lez ikusten zaitut. Zenbat ordu sartzen dozuz ditxosozko gimnasio horretan?



**Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**

Boteiloaren beldur azara? Lasai... ez dira ausartuko!!!!



**Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**

Bikotekideari behingoz bakean ixteko eskatu eta su-etenaren emon dotsu. Orain zeuri dagokizu mugimenduren bat edo beste egitea...



**Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**

Martxa giroa non, zu han. Azken portuko tabernatik azkena urteten dozu beti. Inoiz egin beharko dozu atsedenaldira bat. Lasai, zu barik be martxa egon lei.



**Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**

Zuri begira dago. Eta zu, konturatu be ez. Zuri begira eta zure begira. Baina ez badozu keinurik egiten, etsi egingo dau.



**Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**

Txotxolo halakoa! Zuk isilpean esango dozu eta han-dik bost minututara interneten zabalduko da. Sekretuak, hobeto gordarik.



**Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**

Jakin badakizu. Ez badozu ondo egiten, gehiagotan ahalegindu. Azkenean lortu egingo duzu.



**Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**

Mundialak, zu! Aste Santuko zure oporrak gurako nekez niretzako.



**Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**

Zu pitzatuta zagoz! Zu pitzatuta zagoz! Eh, eh, beste berbetarik ez dekozu ala? Gu, egotekotan, arrakalatu ta gagoz...



**Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**

Duda barik, gitxiago falta da. A ze lasaitua maiatzaren 14an! Edo, aukeran, hobeto arinago.

# agenda

## APIRILAK 1

EUSKARAREN ASTEA. AUZOAREN EGUNA. GOIZEAN MENDI MARTXA, FUTBITO PARTIDAK, KALEJIRA ETA PREGOIA.

## APIRILAK 2

EUSKARAREN ASTEA. DANTZARI EGUNA. GOIZEAN DANTZALDIAK PLAZA GUZTIETAN. ARRATSALDEZ, ETXEBERRIA PLAZAN.

## APIRILAK 4

EUSKARAREN ASTEA. ZINEA EUSKARAZ. 20:00ETAN BEGOÑAKO UDALTEGIAN.

## APIRILAK 5

EUSKARAREN ASTEA. JON MAIAREN HITZALDIA. 20:00ETAN. ARBIDEAKO EUSKALTEGIAN.

## APIRILAK 6

EUSKARAREN ASTEA. BERTSO EGUNA. BERTSO SAIOAK IKASLEEN ARTEAN. ARRATSALDEKO 20:00ETAN ANTZERKIA ARBIDEAKO EUSKALTEGIAN.

## APIRILAK 6

KEU ETA ARIMA BELTZA. KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

## APIRILAK 7

EUSKARAREN ASTEA. JOKOAK KARMELO PLAZAN ARRATSALDEAN ZEHAR. 20:30ETAN KARMELO PLAZAN HASIKO DA 'SANTUTXU KANTARI'.

## APIRILAK 7

HERRIRA PLATAFORMAK DEITUTA. PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA. 20:00ETAN RITXI PLAZATIK.

## APIRILAK 7

BERT SOUND RAP SYSTEM JAIALDIA. BILBOROCK. 19:30EAN.

## APIRILAK 26

LAURA MINGEGIK 'ECCE HOMO' LIBURUAZ BERBA EGINGO DU. 'IRAKURLEAREN TARTEA'. ARBIDEAKO EUSKALTEGIA. 20:00ETAN.

## APIRILAK 28

KOMIKLIPA ANDER ETA GRAUN. BILBOROCK. 19:30EAN.

**IKUSI ETA IKASI**

<b>APIRILAK 1</b> Larunbata	<b>ELVI</b> <b>sabel hitzuna</b> "Nor da panpina...?" 11:00etan, Deustuko Bidarte udalategian
<b>APIRILAK 4</b> Asteartea	<b>AUSKALO TALDEA</b> <b>haur berbena</b> "Skatroiak" 18:00etan, Begoñako udalategian
<b>APIRILAK 6</b> osteguna	<b>ZENBAT GARA ANTZERKIA</b> "Hamaika koloretan dantzan" 18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean
<b>APIRILAK 8</b> Larunbata	<b>ERIZ MAGOA</b> 11:00etan, Deustuko Bidate udalategian

**Bilboko haur kultur zirkuitua**

**B**  
**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

**BILBAO**  
EUSKARAZ